

“PRIMERAKO UDA” IZAN DUGU



Udazkena hemen da, eta udako hilabete hauetan izandako programazioaren balantzea egiteko garaia iritsi da. Esan dezakegu oso positiboa izan dela, bai jardueren aldetik, bai gasteiztarrek emandako erantzunaren aldetik, bai egun horietan Gasteizen zeuden bisitarien aldetik ere.



Hainbat ikuskizunez gozatzeko aukera izan dugu; hala nola, kontzertuak (Carlos Mena Daniel Oyarzabal organistarekin batera; Anne Etchegoyen Baionako Aizkoa abesbatzarekin; Miguelichi Lopez; Sole Gimenez; Antzinako Musika Astearren barruko kontzertuak; Gasteizko XVIII. Nazioarteko Ikastaroaren Jaialdiko musika-hitzorduek), **magia** (Magialdia Imanol Ituiñorekin), **kale-antzerkia** (Ipar Eszena Bidea) eta **zinema-proiektzioak** (Odio el verano, Padre no hay más

de uno 4, ‘Zinema elizpean’ barruan) katedraleko hainbat lekutan, hots, elizpean, nabean edo Santa Maria plazan.

Gainera, Santa Maria aldarrikapenerako eta elkartasunerako eszenatokia ere izan da. **AFARABAKO** lehendakariak manifestu bat irakurri zuen gaixotasun horren Munduko Egunean, irailaren 21ean, eta **Eneko Llanos** eta **Ruth Brito** kirolariek kanpaiak jo zituzten soinu arreta deitzeko, gaixotasuna ez ahaztearren eta hori pairatzen duten pertsonak eta senideak babestearren.

Halaber, elizpean, irailaren 24an, **Mesedeetako Eguna** ospatu zen, eta espetxeak gizarteratzean erronkan

egindako lana aitortu zen. **Maria Jesus San Jose** sailburuak terrorismoaren biktimak izan diren espetxeetako funtzionarioak gogoratu zituen,



eta Francisco Javier Gomez Elosegui saria eman zion **Hiesaren Aurkako Arabako Herriararren Batzordeari**, hiru hamarkadatik gora giza eskubideekiko konpromisoa lantzeagatik eta espetxeetan laguntzeagatik.





Santa Maria Katedrala zaharberritzeko lanen berri zehatz-mehatz Leonen

Azken 25 urte hauetan Santa Maria Katedralean zaharberritzeko egindako proiektu desberdinek ondarearen kontserbazioan adituak direnen interesa pizten jarraitzen dute. Horrela ikusi da gure taldeak Leonen irailaren erdi aldera eta urriaren laugarren

asteen egindako jardunaldi batean parte hartu ondoren. Leandro Camarak, Plan zuzentzailearen egilekide eta katedralaren Bulego Teknikoko arduradunak, joan den hilaren 19an Leongo Katedralaren "Piedras vivas" XV. Jardunaldietan parte hartu zuen, eta 'Gasteizko

Santa Maria Katedralak 25 urte "obretan eta irekita" hitzaldia eskaini zuen. Gure arkitektoak nazioartean erreferente bihurtu diren zaharberritze-lanen xehetasunak partekatzeke aukera izan zuen.



SANTA MARIAN EGINGO DA AITZINA FOLKEN EDIZIO BERRIAREN AURKEZPEN-KONTZERTUA

Katedralean izango da urrian Gasteizen egingo den Aitzina Folk Jaialdi Solidarioaren aurkezpenaren musika-hitzordua. Oraingo honetan, Ziza Folks-en musikaz gozatzeko aukera izango dugu.

Kontzertua larunbat honetan, urriaren 11n, izango da, 19:00etan, katedralako elizpean. Folk sustraletan erabat inspiratzen den hari hirukote gazteak bere doinu alaiekin kutsatuko gaitu. Haren musikan eskoziar, irlandar, bretoi, euskaldun eta gaztelaniazko folk zelta aurki dezakegunez, ipuin herrikioen eta naturaren erritmoen herentzia kultural aberatsa

oroituko dugu.

2013an hasi zenetik, [Aitzina Folk Jaialdi Solidarioaren](#) helburua izan da folk eta kultura tradizionala zabaltzea, musika, dantza eta tailerren bidez, eta, aldi berean, gaixotasun arraro bat, ataxia telangiectasia, ikertzeko borrokan laguntzea. Euskadin gaixotasun hori dute 3 pertsonak eta Estatuan 40 inguruk.

Kontzerturako sarrerak gure web gunean eta Bisitarien Zentroan (Santa Maria Kantoia, 3) eskuratu ahal izango dira ilailaren 29ko (astelehena) 10:00etatik aurrera.

Bazkideek 945 255135 telefonora deitu dezakete urriak 8, asteazkena, baino lehen gonbidapena erreserbatzeko.

HITZORDUA ZAZPIGARREN ARTEAREKIN 'ZINEMA ELIZPEAN' EKIMENARI ESKER

Urriaren 10ean, ostirala, 20:30ean, Santa Maria plazan "Yo volé con Essie Hollis" dokumentala emango da; hau da, joan den maiatzean Baskoniako jokalaria mitikoak Gasteizera egindako bisitari buruzko pieza bat.

'Zinema elizpean' "Gasteiz, Zinema-hiria" ekimenaren barruan kokatzen da, Play Gasteizek antolatzen du eta Gasteizko Udalak eta Laboral Kutxak babesten dute, Santa Maria Katedrala Fundazioaren laguntzarekin. Santa Maria plaza aire zabaleko zinema bihurtzen da.

